



Ebazpena, 2023ko abenduaren 29koa, Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena, zeinaren bidez ebazten baita eskola garraiorako banakako esleipenak, ohiz kanpo, horretarako eskubidea izanda ikasturte hasieran zerbitzu horren falta pairatu duten eta 2023-2024ko ikasturtean maila hauetan matrikulatuta dauden ikasleentzat: Haur Hezkuntzako lehenengo zikloko hirugarren maila, Haur Hezkuntzako bigarren zikloa, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Oinarrizko Lanbide Heziketa.

Hezkuntza Saileko sailburuaren 2023ko irailaren 20ko Aginduaren bidez, 2023-2024 ikasturteko haur hezkuntzako lehen zikloko hirugarren maila, haur hezkuntzako bigarren zikloa, lehen hezkuntza, derrigorrezko bigarren hezkuntza eta oinarrizko lanbide heziketa egiten ari diren ikasleen garraiorako banan-banako diru-laguntzak eskuratzeko deialdia egin zen, ohiz kanpo, horretarako eskubidea izanda ikasturte hasieran zerbitzuaren falta pairatu dutenentzako (EHAA 2023ko irailak 26).

Goian adierazitako deialdi-aginduaren 8. artikulua xedatu duenarekin bat etorritz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Eranskinean agertzen diren eskatzaileei, 2023-2024 ikasturterako eskola garraiorako ezohiko banako dirulaguntzen behin-betiko ebazpenaren berri ematea.

Bigarrena.- Hilabeteko epea irekitzea, behin-betiko ebazpena <https://euskadi.eus> webguneko iragarki-taula elektronikoan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eranskinean zerrendatutako eskatzaileek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaioten Hezkuntzako sailburuari.

Resolución, de 29 de diciembre de 2023, del Viceconsejero de Administración y Servicios del Departamento de Educación, por la que se resuelve la convocatoria extraordinaria de asignaciones individualizadas de transporte escolar para alumnado con derecho a transporte escolar matriculado en el tercer curso del primer ciclo de Educación Infantil, segundo ciclo de Educación Infantil, Educación Primaria, Educación Secundaria Obligatoria y Formación Profesional Básica, para el curso escolar 2023-2024 y afectado por la falta de prestación de dicho servicio al inicio del curso escolar.


Por Orden de 20 de septiembre de 2023 del Consejero de Educación, se convocaron, con carácter extraordinario, asignaciones individualizadas para el alumnado con derecho a transporte escolar matriculado en el tercer curso del primer ciclo de Educación Infantil, segundo ciclo de Educación Infantil, Educación Primaria, Educación Secundaria Obligatoria y Formación Profesional Básica, para el curso escolar 2023-2024 y afectado por la falta de prestación de dicho servicio al inicio del curso escolar (BOPV 26 de septiembre de 2023).

De conformidad con lo establecido en el artículo 8 de la Orden de Convocatoria arriba mencionada,

RESUELVO:

Primero.- Notificar a las personas solicitantes relacionadas en el Anexo, la resolución definitiva de las asignaciones individualizadas extraordinarias de transporte escolar para el curso académico 2023-2024.

Segundo.- Abrir un plazo de un mes, contado desde el día siguiente a la publicación de la resolución definitiva en el tablón electrónico de anuncios de la página web <https://euskadi.eus>, para que las personas solicitantes relacionadas en el anexo puedan interponer recurso de alzada ante el Consejero de Educación.



PATXI XABIER AIZPURUA TELLERIA**ADMINISTRAZIOEN ETA ZERBITZUEN SAILBURUARDEA**
